

8. FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure enpresaren negozio-eredua ondo funtziona dadin, ezinbestekoa da bigarren eskuko produktuen balorazioa, bitartekaritza lana eta plataforma digitalaren kudeaketa modu eraginkorrean egitea.

Lehenik eta behin, jasotzen ditugun produktuak aztertzen ditugu, haien egoera eta kalitatea baloratuz, eta prezio egokia finkatuz; jarduera hau gure know-howaren parte da eta ezin da kanpoko enpresen esku utzi.

Produktua guk erositakoa bada, stock-a eta salmenta estrategiak antolatzen ditugu; eta beste baten produktua bada, bitartekaritza egiten dugu, produktua argazki egoki eta deskribapen zehatz batekin merkaturatuz eta salmenta prozesu osoa bideratuz.



Horrez gain, gure webgunea eta online denda etengabe mantentzea eta eguneratzea funtsezkoa da, izan ere, plataforma digitala da gure jardueraren ardatza eta bertatik egiten ditugu produktuaren bistaratzea, komunikazioa eta salmenta gehienak.

Marketina ere ezinbesteko jarduera da: sare sozialetako presentzia, iragarkiak eta promozioak lantzen ditugu bezeroak erakartzeko eta gure produktuen ikusgarritasuna handitzeko.

Bezero-arreta eta arazoak konpontzea beste jarduera giltzarri bat da, bai salmenta osteko laguntza emateko, bai erosleen eta saltzaileen arteko gorabeherak modu profesionalean kudeatzeko.

Azkenik, logistika eta entregen kudeaketa egiten dugu; bidalketak kanpoko enpresen bidez burutu arren, gure ardura da prozesuaren jarraipena egitea eta entrega egokia bermatzea. Jarduera guzti hauek koordinatuta, gure balio-proposamena sendotu egiten da: bigarren eskuko produktuen salerosketa fidagarria, gardena eta erraza eskaintzea, bai saltzaileentzat, bai erosleentzat.